

DÍA INTERNACIONAL
DE LAS MUJERES

# LA FUERZA TRANSFORMADORA DEL FEMINISMO SINDICAL

#AfiliadasJuntasFuertes

**Desde CCOO apostamos por el feminismo sindical, como elemento sustancial de transformación ante las viejas estructuras y normas patriarcales, y ante los nuevos movimientos reaccionarios.**

El feminismo sindical nos llena de energía y de esperanza, porque nos une con la larga cadena de manifestaciones de reivindicación y rebeldía de las mujeres que nos precedieron: las del textil, las cigarreras, las maestras, enfermeras, dependientas, las jornaleras, las de la dependencia y ayuda a domicilio...

El feminismo sindical es la energía que está presente desde la Revolución Industrial, cuando las mujeres trabajadoras en manufacturas y fábricas lucharon por mejores condiciones laborales, protagonizaron huelgas, protestaron por los bajos salarios, largas jornadas, la necesidad de conciliación y contra la violencia sexual.

El feminismo sindical es la esperanza que, a partir del ejemplo de las que fueron, anima a la lucha de las que estamos, siendo sujetos de nuestra propia historia, para crear mejores mundos posibles.

No ha sido fácil, no nos han regalado nada y hemos debido luchar para acceder a un ámbito laboral que se nos negaba; pero estamos superando todos los obstáculos que nos han puesto para lograr un empleo que nos permite obtener autonomía e independencia económica. En este momento hay más mujeres empleadas que nunca. Somos más de 10 millones de mujeres trabajando retribuidamente en 2024, un 46% de la fuerza laboral **¡AQUÍ ESTAMOS!** Aunque estamos también reivindicando mejores condiciones laborales.

La negociación de más de veinte mil planes de igualdad está implementando el feminismo en las empresas, pero hay que seguir #AfiliadasJuntasFuertes ejerciendo la acción sindical para combatir las brechas laborales que aún persisten: frente a una menor tasa de empleo, una mayor tasa de desempleo, la enorme parcialidad y la mayor temporalidad. Acabar con la parcialidad femenina involuntaria desde la negociación colectiva o mediante alguna norma, así como revisar los criterios de asignación de valor del trabajo que se traducen en complementos mayoritariamente masculinizados son retos urgentes para el feminismo sindical de CCOO.

A pesar de que tenemos más formación y mejores currículos persiste la brecha salarial de género en un 19,6%. Es cierto que esta brecha se ha reducido de manera considerable, cerca de 10 puntos, gracias a la subida del SMI (un 61% desde 2018), la valoración de puestos de trabajo con perspectiva de género y las subidas de los salarios de las categorías más bajas fruto de haber utilizado la negociación colectiva como la mejor estrategia de igualdad laboral. Lograr la igualdadsalarial para los trabajos de igual valor es otro ejemplo de feminismo sindical por el que CCOO lleva tiempo esforzándose dentro y fuera de los centros de trabajo.

La acción sindical no se queda encerrada en las paredes de las empresas, y es imprescindible conectar los espacios públicos, privados y domésticos como el feminismo nos enseña. Revalorizar el trabajo formal einformal de cuidados y conseguir una mayorcorresponsabilidad se hacen imprescindibles para conseguir la igualdad.

Desde el feminismo sindical de CCOO se exige que cada parte asuma su responsabilidad. La ciudadanía tiene derecho al cuidado y el Estado debe ser garante de este derecho, por lo que, además de una red universal y pública de políticas de cuidado, desde CCOO exigimosun gran Pacto Estatal por los cuidados y hemosformulado más de 100 propuestas sindicales en esta materia. Pero también las empresas y los hombres deben asumir su responsabilidad. #AfiliadasJuntasFuertes tenemos que seguir dando pasos para acabar con la histórica división sexual del trabajo.

El trabajo sindical realizado también está permitiendo reducir la enorme brecha en las pensiones, pero aún debemos avanzar para conseguir la paridad y acabar con las múltiples violencias. CCOO, como sindicato feminista, pretende que su activo sindical se construya como un cordón de seguridad frente al acoso sexual producido en el trabajo y en torno al mismo. La negociación y aplicación de los protocolos de prevención y tratamiento del acoso sexual y por razón de sexo es solo una de las medidas que se llevan realizando desde hace más de una década. Porque sobre las mujeres víctimas de violencia no debe caer la responsabilidad de contarlo, este sindicato ha asumido esta tarea. Mediante el Observatorio de Acoso Sexual y por Razón de Sexo, CCOO está visibilizando la violencia sexual en el trabajo, y además aporta herramientas de orientación a las víctimas y a las delegadas y delegados sindicales para que sepan actuar eficazmente frente a esta violencia. Pero además lo hacemos desde una mirada interseccional de modo que se ponga una mayor atención sobre los colectivos más precarizados, como son las jóvenes, las mujeres migrantes y otros sujetos minorizados o que puedan encontrarse en situaciones de vulnerabilidad. Y a pesar de todo, sabemos que aún no es suficiente, que debe desarrollarse plenamente el Convenio 190 de la OIT y que se necesita mucho más y en todos los ámbitos.

## #AfiliadasJuntasFuertes

Este 8 de marzo desde CCOO queremos aportar nuestro esfuerzo sindical al movimiento feminista para que **#JuntasyUnidas** seamos muchas más, más fuertes, molestas, arriesgadas, alegres y combativas para, desde la sororidad, lograr acabar con el orden patriarcal y alcanzar la equidad.

Juntas y unidas no cejaremos en nuestro empeño por acabar con todas las violencias machistas, las múltiples discriminaciones laborales y la falta de autonomía y libertad. Seguiremos apostando por este **#FeminismoSindical** que nos hará mujeres más autónomas, felices e independientes.

Desde el **#FeminismoSindical** de CCOO instamos a toda la afiliación a seguir trabajando por la equidad laboral cada día, pero además, de modo especial, este 8 de marzo, la animamos a sumarse a las convocatorias que el movimiento feminista haya convocado en las distintas localidades.

**#AfiliadasJuntasFuertes para lograr transformar, a través del feminismo, la realidad social de todas las mujeres.**



EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA

# FEMINISMO SINDIKALAREN INDAR ERALDATZAILEA

## Afiliatuak Elkarrekin Indartsuak

**CCOOtik feminismo sindikalaren alde egiten dugu eraldaketarako funtsezko elementu gisa egitura eta arau patriarkal zaharren eta mugimendu erreakzionario berrien aurrean.**

Feminismo sindikalak energiaz eta itxaropenez betetzen gaitu gure aurretik egon diren emakumeen aldarrikapen eta errebeldia adierazpenekin batzen gaituelako: ehungintzakoak, zigarrogintzakoak, maistrak, erizainak, saltzaileak, jornalerak, mendekotasunekoak eta etxez etxeko laguntzakoak...

Feminismo sindikala Industria Iraultzatik sortu zen energia da; izan ere, manufakturetan eta fabriketan lan egiten zuten emakumeak lan baldintza hobeagoen alde borrokatu ziren, grebak egin zituzten, soldata baxuak, lanaldi luzeak, kontziliazioaren beharra eta sexu-indarkeriaren aurkako protestak eginez. Feminismo sindikala, izan zirenen adibidetik abiatuta, geure historiaren subjektu garenon borrokara bultzatzen gaituen itxaropena da, mundu posible hobeak sortzeko.

Ez da erraza izan, ez digute ezertxo ere oparitu eta ukatu zaigun lan eremu batetara sartu ahal izateko asko borrokatu behar izan dugu; baina autonomia eta independentzia ekonomikoa ematen digun enplegu bat lortzeko jarri zaizkigun oztopo guztiak gainditzen ari gara. Oraintxe inoiz baino gehiago dira enplegu bat duten emakumeak. 10 milioi emakume baino gehiago gara 2024ean ordainsari batekin lanean gabiltzan emakumeak, langile indarraren %46. **HEMEN GAUDE!** Eta lan baldintza hobeak aldarrikatzen ari gara.

Feminismoa hogei mila berdintasun planetik gorako negoziazioa ezartzen ari da enpresetan baina afiliatuak, elkarrekin eta indartsu jarraitu behar dugu, ekintza sindikala aurrera ateraz oraindik badirauten lan arrakalei aurre egiteko: enplegu tasa txikiagoa, langabezia tasa handiagoa, partzialtasun izugarria eta behin-behinekotasun handiagoa.

Negoziazio kolektibotik edo arauen bidez nahi ez den emakumeen partzialtasunarekin amaitzea eta lanaren balioa esleitzeko irizpideak berrikustea, osagarri gehienak maskulinizatuak baitaute, premiazko erronkak dira CCOOren feminismo sindikalarentzat.

Nahiz eta formakuntza eta curriculum hobeak izan genero arrakalak badirau, %19,6. Egia da arrakala hori asko murriztu dela, 10 puntu inguru, Gutxieneko Lanbide arteko Soldataren igoerari esker (%61 2018 urtetik) genero ikuspegia duten lanpostuen balorazioa eta kategoria txikienetako soldaten igoerak, negoziazio kolektiboa lan berdintasunaren estrategia gisa erabili izanaren ondorio dira. Balio bereko lanetarako soldata-berdintasuna lortzea ere feminismo sindikalaren beste adibide bat da, eta CCOOk denbora darama horretan ahalegintzen, bai lantokian, bai lantokitik kanpo.

Ekintza sindikala ez da enpresetako hormen artean geratzen, ezinbestekoa da espazio publikoak, pribatuak eta etxekoak konektatzea, feminismoak erakutsi digun moduan. Berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da zaintza-lan ezformalari eta lan formalari balioa ematea eta erantzunkidetasun handiagoa lortzea. CCOOko feminismo sindikalak alde bakoitzak bere erantzukizuna bere gain hartzea eskatzen du. Herritarrek zaintzarako eskubidea dute, eta Estatuak eskubide horren bermatzaile izan behar du. Hori dela eta, zaintza politiken sare unibertsal eta publiko batez gain, CCOOtik zaintzarako Estatu Itun handi bat eskatzen dugu, eta 100 proposamen sindikal baino gehiago egin ditugu arlo horretan. Baina enpresek eta gizonek ere beren erantzukizuna onartu behar dute. Afiliatuak, elkarrekin eta indartsu lanaren sexu-banaketa historikoarekin amaitzeko urratsak ematen jarraitu behar dugu.

Egindako lan sindikalak pentsioen arrakala izugarria murriztea ere ahalbidetu du, nahiz eta oraindik aurrera egin behar dugun parekotasuna lortzeko eta indarkeriarekin amaitzeko. CCOOk, sindikatu feminista den aldetik, laneko eta haren inguruan sortzen den sexu-jazarpenari aurre egiteko segurtasun-kordoi gisa eraiki nahi du bere aktibo sindikala. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta tratatzeko protokoloak negoziatzea eta aplikatzea duela hamarkada bat baino gehiagotik dauden neurrietako bat baino ez da. Izan ere, indarkeriaren biktima diren emakumeek ez dute hori zertan kontatzeko erantzukizunik, sindikatu honek bere gain hartu du zeregin hori. Sexu Jazarpenaren eta Sexu Arrazoiengatiko Behatokiaren bidez, lantokietan dagoen sexu-indarkeria ikusarazten ari da CCOO, eta orientazio-tresnak ematen dizkie biktimei zein sindikatuetako ordezkariei, indarkeria horren aurrean eraginkortasunez jarduten jakiteko. Eta hori ikuspegi intersekzionaletik egiten dugu, arreta handiagoa jar dadin prekarizatuenak dauden kolektiboengan, hala nola emakume gazteengan, emakume migratzaileegan eta beste subjektu minorizatu batzuengan edo kalteberatasun egoeretan egon daitezkeen emakumeengan. Eta, hala eta guztiz ere, badakigu oraindik ez dela nahikoa, LANEren 190 Hitzarmena erabat garatu behar da, askoz gehiago behar da eta eremu guztietan. Martxoaren 8an, CCOOk gure ahalegin sindikala gehitu nahi diogu mugimendu feministari, elkarrekin eta batera askoz indartsuagoak, gogaikarriagoak, arriskutsuagoak, alaiagoak eta borrokalariagoak izan gaitezen ordena patriarkalarekin amaitzeko eta berdintasuna lortzeko.

## Afiliatuak Elkarrekin Indartsuak

Elkarrekin eta batera ez dugu etsiko indarkeria matxista, laneko diskriminazioak eta autonomia eta askatasun faltarekin amaitzeko ahaleginean.

Feminismo Sindikal honen aldeko apustua egiten jarraituko dugu, emakume autonomoagoak, zoriontsuagoak eta independenteagoak egingo baikaitu.

CCOOko feminismo sindikaletik afiliazio osoari dei egiten diogu berdintasunaren alde lanean jarraitzeko baina bereziki martxoaren 8an mugimendu feministak herri desberdinetan deitutako deialdiekin bat egitera animatu nahi dugu gure afiliazioa.

**Afiliatuak, elkarrekin eta indartsu feminismoaren bitartez emakume guztion errealitate soziala eraldatzeko.**

CCOO
emakumeen idazkaritza